

Aurkezpena

Bizi ditugun uneetan hedaduran eta intentsitatean aurrekorik ez duen krisi ekonomiko batek kalte egiten die gure Herrialdearen corpus kulturalaren azalpen posibilitateei, bizi eta jasaten dugun espekulazio eta epe laburrerako etekinak lortzeko kulturaren eraginez, zalantzarik gabe. Gainera, era guztietako azterketa eta ikerlanen argitalpenak bere formatu tradizionalen –paperean–, edizio digitalek gogor jazarririk aurkitzen dira, bigarren horiek oso prezio apalean, eta are dohainik ere, jaso daitezke eta. Gauzak horrela, guztiz agerikoak dira jasaten ari garen zailtasun gogorrak, bai lanak biltzerakoan bai gero argitara ematerakoan.

Uneotan jarduerari eustea dugu erronka. Baliabideak doitu, eragin-kortasuna hobetuz, orain arte lorturikoa defentsa heroikoa eskatzen digun espiritu horri atxikiz. Jardunean jarraitzea une txarra gainditzeko. Argitaratzen jarraitzea, jardunaldiak antolatzen jarraitzea, kultura hedatzen jarraitzea. Txalogarria da garai larriotan lantegi hauetan tematzen direnen ahalegina. Eta hemen, era berezian aitortu nahi dut Eusko Ikaskuntzaren egiturari diharduten eta hari eusten dioten pertsona guztien lana.

Ahalegin horri esker gauzatu ahal izan da OSASUNAZ agerkariaren ale hau, aise bereizten diren bi ataletan aurkezten dena. Bietako lehenean, 2011 urtean Julian de Ajuriaguerraren jaiotzaren (1911) ehungarren urtemugan egindako Omenaldi Jardunaldietako txostenetatik datozen bederatzi artikulua bildu dira. Gizona, haren historia, gaixoaz zuen ikuspegi orokorra eta haren pentsamenduaren gaurkotasuna tratatu ziren Bilbon eta Baionan egindako jardunaldi horietan. Bigarren atalak, aldiz, Osasun Zientziak gai askotariko artikulua biltzen ditu, saileko kideek gauzaturikoak.

Eusko Ikaskuntza berrikuntza prozesu batean murgildurik dago, duela 100 urte bere buruari ezarri zion euskal kulturaren ikerketa eta dibulgazio lan etengabeari eraginkortasun eta efikazia handiagoz ekin beharrez. Argitalpen honek sorrera helburuari egindako ekarpen txiki bat izan nahi du.

José Manuel González Aramendi

Presentación

Vivimos momentos en los que una crisis económica de extensión e intensidad sin precedentes, acaecida sin duda por la cultura de la especulación y de la obtención de rendimientos a corto plazo que hemos vivido y sufrido, hace mella en las posibilidades de expresión del corpus cultural de nuestro País. La publicación de estudios y trabajos de todo tipo en su formato tradicional –en papel–, se ve además fuertemente acosada por las ediciones digitales que, en la medida en la que muchas de estas pueden ser adquiridas a precios muy bajos, incluso de forma gratuita. Así las cosas, resultan más que evidentes las fuertes dificultades que padecemos en materia de recopilación de trabajos y en su posterior edición.

El reto es, en estos momentos, mantener la actividad. Ajustando recursos, mejorando en eficiencia, manteniendo ese espíritu que nos demanda ahora una defensa numantina de lo hasta ahora logrado. Seguir activos para superar el mal momento. Seguir publicando, seguir organizando jornadas, seguir expandiendo cultura. Resulta meritorio el esfuerzo de cuantos se empeñan en estas labores en tiempos difíciles. Y quiero reconocer aquí, de manera especial, el de cuantas personas trabajan y sostienen la estructura de Eusko Ikaskuntza.

Este número de OSASUNAZ es posible gracias a ese esfuerzo, y se presenta en dos secciones claramente identificables. En la primera se recogen nueve artículos derivados de las ponencias de las Jornadas Homenaje a Julián de Ajuriaguerra, organizadas en 2011 por Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos con motivo del 100 aniversario de su nacimiento (1911). El hombre, su historia, su visión global del paciente y la actualidad de su pensamiento fueron tratados en estas jornadas, que tuvieron lugar en Bilbao y Baiona. La segunda parte agrupa artículos de distinta temática, realizados por socios de la sección de Ciencias de la Salud.

Eusko Ikaskuntza se encuentra inmersa en un proceso de renovación, en aras de afrontar con mayor eficacia y eficiencia la labor continuada de investigación y divulgación cultural de lo vasco, que ella misma se impuso hace casi 100 años. Sea esta publicación una pequeña contribución al objetivo fundacional.

José Manuel González Aramendi